

4. DIRU-SARRERAK

Atal honek Vitalix-ekin kolaboratzen duten entitate estrategikoak aurkezten ditu, baita haien parte-hartzearen garrantzia ere. Sareko lankidetzak egokia funtsezkoa da aplikazioaren segurtasuna, legezotasuna eta eraginkortasuna bermatzeko. Hemen azaltzen da nola osatzen duten ekosistema hori larrialdi-zerbitzuek, prestakuntza-zentroek, hornitzaile teknologikoek eta bestelako aliatuek, eta zergatik dira funtsezkoak proiektuaren arrakastarako.

Bezeroek Ordaintzeko Prest Dauden Moduak

Vitalix-ek diru-sarreraren eredu anitza garatzen du, aplikazio teknologiko eta sanitario gisa bezeroak prest daudelako segurtasuna, koordinazio profesionala eta larrialdietan erantzun-denboraren murrizketa nabarmena eskaintzen dien zerbitzu baten truke ordaintzeko. Negozio-ereduan bezero nagusiak hauek dira: udal administrazioak, osasun-instituzioak, herritarrak, boluntarioak eta aseguru-etxeak. Guztiek balio argia ikusten dute Vitalixen bidez, eta horri esker, bai ordainketa errepikakorren bidez, bai ordainketa bakarrekoen bidez diru-sarrerak sortzen dira.



Ordainketa Errepikakorrak

Vitalix-en diru-sarrera nagusiak harpidetza-sistemetan oinarritzen dira. Udalek eta osasun-erakundeek urteko lizentzia ordaintzen dute aplikazioaren funtzionamendu osoa bermatzeko: plataforma profesionala erabiltzeko, boluntarioen koordinazioa kudeatzeko eta 112 / SOS Deiak sistemarekin modu seguruan integratzeko. Erakunde hauek dira diru-sarrera nagusiak, aplikazioa herritarren artean modu masiboan hedatzen dutelako eta sistema komunitarioan txertatzeko gaitasuna dutelako.



Aseguru-etxeek ere urteko harpidetza ordaintzen dituzte prebentzioarekin lotutako datu agregatuetara sartzeko eta arrisku sanitarioen analisia egiteko, osasun-kostuak murrizteko eta prebentzio-ekimenak hobetzeko. Horrez gain, boluntarioei zuzendutako prestakuntza aurreratuaren harpidetza aukera egongo da, simulazio adimendunak, eszenario

gamifikatuak eta ziurtagiri osagarriak eskuratu nahi dituztenentzat. Hori guztia diru-sarrera errepikakor osagarri gisa kokatzen da.

Ordainketa Bakarreko Diru-sarrerak

Vitalix-ek ordainketa bakarreko diru-sarrerak ere sortzen ditu produktu eta zerbitzu zehatz batzuen bidez. Horien artean larrialdi-kit fisikoen salmenta dago, herritarrei eta erakundeei zuzendua. Kit hauek oinarritzko bertsio estandarra edo teknologia adimenduna duten bertsio aurreratuak izan daitezke, eta aktiboen salmenta gisa funtzionatzen dute.

Udalei edo erakundeei aplikazioa ezartzeko beharrezko instalazio profesionalak ere ordainketa bakarreko diru-sarrera garrantzitsua dira. Hauen artean daude plataformaren konfigurazio teknikoa, boluntario-sarearen aktibazioa eta interfaze pertsonalizatuen diseinua. Zerbitzu horiek beharrezkoak dira Vitalix abiarazteko eta hasierako inbertsio teknologiko handia estaltzeko.

Diru-sarrera Osagarriak

Vitalix-ek beste diru-sarrera osagarri batzuk ere sortuko ditu publizitate etiko eta mugatuaren bidez, beti osasun-prebentzioarekin lotutako eduki instituzionaletara bideratuta. Ez da publizitate komertzial generikorik onartuko aplikazioaren izaera sanitarioagatik. Gainera, prestakuntza homologatua eskaintzen duten erakundeek Cruz Roja, DYA eta eskolak Vitalix bidez jasotzen dituzten matrikulazioengatik komisio txiki bat ordainduko dute, eta horrek diru-sarrera osagarri txikia baina etengabea sortuko du.

Prezio Estrategia

Vitalix-ek prezio finko eta dinamikoen arteko konbinazioa erabiltzen du. Prezio finkoak jasotzen dira udalentsako lizentzietan, kit fisikoen salmentan, prestakuntza-harpidetzetan eta instalazio profesionaletan. Aldiz, prezio dinamikoak erabiltzen dira datu aurreratuen zerbitzuetan, komisioetan eta boluntario-sarearen eskalaren arabera moldatzen diren zerbitzuetan. Estrategia honek diru-sarreraren egonkortasuna eta malgutasuna bermatzen ditu.

Hasierako Inbertsioa eta Jasangarritasuna

Proiektuak hasieran inbertsio teknologiko handia behar du, geolokalizazio-sistemak, cloud azpiegitura eta cibersegurtasun maila altuak garatu behar direlako. Horregatik, lehen urteetan diru-sarrera garrantzitsuenak izango dira udal eta erakunde publikoen lizentzia eta instalazio-zerbitzuak, inbertsio horiek estaltzeko ezinbestekoak. Behin plataforma eta boluntario-sarea sendotuta, harpidetza errepikakorrek eta zerbitzu osagarriak izango dira Vitalixen epe luzeko jasangarritasun ekonomikoaren oinarri nagusiak.

Publizitatea

Vitalixen publizitate-kanpaina ikuspegi sozial, instituzional eta sentsibilizatzailean oinarrituko litzateke. Sare sozialetan (Instagram, TikTok eta LinkedIn...) iragarkiak egingo lirateke, eduki

bisual eta hezigarrien bidez larrialdietan erantzun azkarrak duen garrantzia eta aplikazioaren funtzionamendua azaltzeko.

Horrez gain, kaleko publizitatea ere egingo litzateke, osasun-zentroetan, espazio publikoetan eta udal-eraikinetan kartelak jarritz, aplikazioa deskargatzea errazteko QR kodeak barne. Kanpaina udalekin eta osasun-arloko entitateekin egindako lankidetzaren bidez indartuko litzateke, kanal ofizialak eta tokiko ekitaldiak erabiliz proiektuari sinesgarritasuna emateko

Publizitateak diru-sarrera sortuko ditu Vitalixentzat osasun eta prebentzio kanpaina instituzionalen bidez, udalek eta osasun-erakundeek ordaindutakoak, aplikazioaren barruan eta haren kanaletan zabaldua. Horrez gain, prestakuntza-zentroetatik eta osasun-erakundeetatik komisioak jasoko dira ikastaroak eta jarduerak plataformaren bidez sustatzearen.

BIBLIOGRAFIA:

- García,B.-Tena, D.-Bernabeu, M^a E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.

-STARTINNOVA plataformako materiala.

-<http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas>

- Logoa: https://desing.com/_s

-Argazkiak:

<https://chatgpt.com/>